



Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una publicación seriada, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.eus/ikastorratza/>

Babes-Etxea proiektua: Ikasleek oreka emozionala lortzeko gunea

Miriam Aguirreurreta Lizaso¹ & Jose Maria Etxabe-Urbieta² 

¹Zaldibiako Lardizabal Herri Eskola

m.aguirreurreta@irakasle.eus

²Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

josemari.etxabeurbietta@ehu.eus

To cite this article:

Aguirreurreta, M. & Etxabe-Urbieta, J.M. (2025). Babes-Etxea proiektua: Ikasleek oreka emozionala lortzeko gunea. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 35, 84-104. DOI: 10.37261/35_alea/4

To link to this article:

https://doi.org/10.37261/35_alea/4

Published online: 30 Sept 2025

Babes-Etxea proiektua: Ikasleek oreka emozionala lortzeko gunea

Miriam Aguirreurreta Lizaso¹ & Jose Maria Etxabe-Urbieta² 

¹Zaldibiako Lardizabal Herri Eskola
m.aguirreurreta@irakasle.eus

²Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
josemari.etxabeurbietta@ehu.eus

Laburpena

Proiektu honetan, osasun emozionala zaintzeko egiten diren esfortzuak ebaluatzen dira eta horretarako itunpeko ikastetxe bat aztertu da. Prozesuan adituen ideiak kontrastatu eta egokienak hautatu dira eta ikastetxeko baliabideak aintzat hartu dira. Proiektu honetan zailtasunak eta konplexutasun alderdiak identifikatu dira eta sortutako gelak emozioen lanketa bideratzeko aproposa izan dela ohartarazi da. Ikasleen osasun emozionalean zentratu da eta protokolo propioa eratu da, jarraibide-bilduma eta materialez hornituz. Proiektu hau kasu erreal batean kokatzen da eta diseinatu eta garatu den Babes-Etxe erreala sortu da. Aurrezarritako xedeak betetzen ditu eta ikastetxeko premia duten ikasleen emozioetan oinarritu da.

Hitz gakoak: Babes-Etxe; Emozioak; Ikastegiko protokoloak; Proiektua

Shelter House Project: A Space for Students to Achieve Emotional Balance

Abstract

In this project, the efforts made to care for emotional health are evaluated and for this a concerted school is analyzed. During the process, the ideas of the experts were compared and the most suitable ones were selected, taking into account the resources of the school. In this project, difficulties and aspects of complexity were identified and it was found that the room created was ideal for focusing on the processing of emotions. It has drawn attention to the emotional health of students and has established its own protocol, providing a collection of guidelines and materials. This project is contextualized in a real case and the Safe-Home has been designed and developed. It fulfills the predetermined objectives and is based on the emotions of the students in need of the school.

Keywords: Safe-Home; Emotions; School protocols; the project

El Proyecto Hogar-Seguro: Un entorno para el equilibrio emocional del alumnado

Resumen

En este proyecto se evalúan los esfuerzos realizados para cuidar la salud emocional y para ello se analizó una escuela concertada. Durante el proceso se compararon las ideas de los expertos y se seleccionaron las más adecuadas, teniendo en cuenta los recursos de la escuela. En este proyecto se han identificado dificultades y aspectos de complejidad y se ha constatado que la sala creada ha sido idónea para el procesamiento de las emociones. Se ha centrado en la salud emocional de los estudiantes y ha establecido su propio protocolo, proporcionando una colección de pautas y materiales. Este proyecto está contextualizado en un caso real y se ha diseñado y desarrollado un Refugio-Hogar. Cumple con los objetivos predeterminados y se basa en las emociones de los estudiantes necesitados de la escuela.

Palabras clave: Refugio-Hogar; Emociones; Protocolos escolares; el proyecto

1. Sarrera

Ikastetxe batean lanean denbora igaro ondoren, bertako lan egiteko era, erabilitako materiala eta irakasleen rolak errutina bihurtzen dira eta maiz ez zaie kritikoki begiratzen. Hori bermatzeko irakasleen formakuntzaren aldeko apustua egin behar da, hauek izango baitira haurren bidelagun ibilbide akademiko eta pertsonalean.

Sentimenduek ongizatean eta eguneroko jardunean inpaktua dutela jakinda, garapen globalerako osasun emozionala zaindu behar da. Lan hau 2022-23 ikasturtean K.E.n oreka emozionalari arreta jartzeko eskaeratik abiatu da. Hala, oreka emozionalerako gela bat sortzeko erronkari aurre egin zaio. Xedetzat du beharrezko protokolo eta funtzionamendu arauak zehaztea. Honekin guztiarekin, ikastetxeko funtzionamendua erraztea eta etengabe bikaintasunera gerturatzea bilatzen da.

Haur bakoitzak besteengandik desberdintzen dituen bizi-prozesu, psikofisiko eta heltze-prozesu bat du. Hori islatzen da gizabanako bakoitzaren jokabideetan, prozesu mentaletan eta bere ingurune hurbilarekin erlazionatzeko moduan.

Proiektu ugariak baieztatzen dute portaera desagokia arrazoi edo egoera zehatzei erantzun desagokia dela, eta irakaslearen eginkizuna dela ikasleei jokabide egokian trebatzea, heziketa integral bati zuzenduta.

2. Marko teorikoa eta kontzeptuala

2.1. Errealitatea abiapuntutzat

Aurrez aipatu legez, zaila da egunero automatikoki egiten dena aztertzea, ez da ekintzen ondorioez jabetzeko pausarik egiten. Gure jarrerak, hitzek zein keinuek uste baina eragin gehiago dute umeengan. Haurrek, bizi esperientzia laburra dute, emozioak biziki sentitzen dituzte eta horiek kudeatzeko tresna gutxi dauzkate, hortaz, bulkadaz erantzuten dute sarri. Ikertu den ikastetxean izandako 6 urteko esperientziak erakutsi dit, horien aurrean helduok (irakasleak ala familia) “astakilo” gisako hitzak erabili ohi ditugula. Horrela, jokaeraren ordeaz, izaeraren parte diruditen etiketak ezarriz, ondorioz, emozioak gehiago gordearaziz txikiei. Haurrei entzun eta sentimenduak adierazten laguntzea litzateke egokiena.

Battista Quinto Borghiren (2005) “Los talleres en educación infantil” liburuak utopia eta errealitatearen muga kokatzen laguntzen du: bertan utopia zerumugan dagoela dio eta hara heltzea oso zaila dela. Hurbiltzeko hamar pauso ematerakoan hamar pauso urrunduko dela dirudiela dio, zenbat eta gehiago bilatu orduan eta aurkitzea konplexuagoa dela, hurbildu

ahala urruntzen baita. Finean helburuak jartzeko ase ezintasun hori bikaintasunerako bide bakarra dela adierazten du. Liburu horretan eskolaratzearen onurak eta garrantzia aipatzen da. Izan ere, gizarteratzea eta aniztasunean bizitzea dakartza. Komunitateak hezkuntza alde batera utziko balu zer gertatuko litzakeen hausnartzera gonbidatzen du eta bere iritzia islatu ondorengoak bezalako esaldiekin: “Tribu osoa behar da ume bat hezteko” (Masaai esaera zaharra). Era berean Haur Hezkuntza etapari buruz Olazar Intxaustik eta Idoiaga Mondragonek (2022) familia aniztasunaren trataera eta adimen emozionalaren garrantzia aztertut dute. Haien proiektuan ikasgeletan irakasleen aurreiritziak eta eskoletako materialak aztertut dituzte.

Bestalde, Urkijok eta Olazarrek (2023) Bizkaiko Hezkuntza-Proiektu Alternatiboei buruzko proiektuan adimen emozionala txertatut dute beste ezaugarrien, erronken eta mugen artean. Ikusaraziz horrek duen garrantzia.

Haur hezkuntzan, "gatazkatsutzat" jotzen diren ikasleek, oro har, erregulazio emozionala, sozializazioa eta gelako arauak betetzeko zailtasunak dituzte. Haur hauen jokaeren artean daude desafioak, oldarkortasuna, saioak etetea eta interes falta. Portaera desegokien aurrean indargarriak erabiltzea oso teknika ohikoa da eta horretarako Babes-Etxea bezalako espazioak erabiltzea egokia da. Bertan jokaera gatazkatsuak azaleratu, deskarga tonikoa erraztu eta sentimenduen jatorria identifikatu daitezke. Modu honetan, etorkizunean prebentzioa erraztu daiteke, ikasleentzako ikaskuntza-ingurune positiboa eta segurua bermaturik (Timoneda, 2022). Laburrean esanda, ikasleak gaitasun sozialak, emozionalak eta komunikatiboak modu eraginkorrean kudeatzen trebatuko dira (Lozada García eta Acle Tomasini, 2021)

Emozioena oso termino abstraktua eta zabala da. Alde batetik, erabat subjektiboak dira. Bestetik, une konkretu batean aktibatzen dira. Gainera, gehienetan ez dira norberak aukeratuak izaten sentipenak, baizik elkarreraginean sortuak. Horien detekzioa, azaleratzeko kausak eta hortik eratorritako erreakzioak erregulatzen ikastea berebizikoa da.

2.2. Irakasle-jardunean ikasitakoa

Ezinbestekoa da hezitzaileek jokabide horien aurrean jarraibide egokiak agertzea: uneoro egoera kontrolpean izango da, ezingo dira adierazpide bortitzak (oihuak...) aplikatu, ahots tonu egokia eta hizkuntza argia behar dira eta haurrari egoeraren garrantziaz jabetuarazi behar zaio, baita bere ardurak hartzen erakutsi ere.

2.2.1. Euskal legedira doitua

Jakina da legediarekin bat etorri behar dutela hezkuntza-jarduerak, EAEn LOMLOEa egokituta eta konpetentzian oinarrituta egongo dira. Gaurko munduan behar diren trebeziak dituzten etorkizuneko heldu autonomo eta ekintzaileak sortu nahi dira. Battista Quinto Borghik (2005) 34. orrialdean hori adierazten du “La competencia puede entenderse como el dominio de algunas habilidades funcionales en una cultura y la capacidad de seguir las reglas y los estilos de la propia comunidad de pertenencia, interviniendo de forma adecuada y funcional.”. Iradokitzen duena da, trebezia funtzionalak garatzeko konpetentzietara jo behar dugula eta gure kulturaren ditugun arauak jarraitu behar ditugula.

2.2.2. Helduak formatu haurrak hezteko: metodo narratiboa profesionalen prestakuntzan

Aipagarria da Creus eta Domingok (2013) 27. orrialdean XXI. mendeko eskolekiko azaltzen duten ikuspuntuan IKTen eragina aipatzen dute. Egungo gizartean helduen prestakuntzarako bide berriak eta anitzak sortu direla, jakintzak partekatzeko aukerak daudela, denbora eta eskolako espazioak beste modu batean antola daitezkeela eta haurrak mailakatzeko joera dugula diote.

Monasterio, M., González, S., & García, A. (2011) euren ikuspegi kritikoagatik aipatuko dira. “Los centros educativos son reflejo de una sociedad con muchos problemas como conflictos no resueltos, violencia, frustración, falta de motivación” (32.or.) Kausa ugari egon daitezke aipatutako faktoreak agertzeko. Zenbait zerrendatzeagatik: ikasgelak ikasleez gainezka, aldaketetara egokitzeko pertsonal eta baliabide falta, klase ordu bakoitza ahalik eta produktiboena izatea eskatzen duten programazio intentsiboak, eta ebaluazio-emaitzak pertsona baloratzeko modu bakartzat. Tonuccik (2013) “la escuela tiene una relación muy escasa con la vida misma [...] La escuela ha de ser capaz de leer la realidad concreta que rodea al niño. La geografía es la de su barrio; la historia, la de su familia.” esaldiarekin azaltzen du bere lanaren funtsa Tiching aldizkari digitalean. Bere idatziaren 39-44 lerroetan irakur daiteke modu berean “La escuela es una estructura absolutamente ajena a la vida social [...] un aula es un espacio abstracto que se repite exactamente igual una y otra vez”. Motzean, ikasleak leku abstraktu batean sartzen ditugula eta norbanakoaren nolakotasuna kontutan ez hartzea leporatzen du, jakinik geure errealitatea anitza dela zentzu guztietan.

Egunerokoa idaztea lagungarri izan daiteke jokaerak ulertzeko, patroiak aurkitzea ahalbidetzen baitu. Esaterako, beti jateko orduan haserretzen dela haurra. Ziur datu garrantzitsua dela behin eta berriz errepikatzen den zerbait bada. Interesgarria da agenda

hurrengo urteko tutoreari helaraztea behaketarekin jarraitu eta denen artean historial osatu bat eraikitzeko. Etorkizunean antzeko egoerak topatzean aurrekari horietan eginiko eskuhartzeen berri izateak ere lagunduko du.

A. Richerten ustez (2003) “La escritura de la narración parece darme la oportunidad de considerar en profundidad un breve momento de lo que estoy viendo en la clase y de sacar conclusiones”. (203.or.). Gelako kontakizunak idazteak aukera ematen du ikasgelan behatzen dena hausnartzeko eta ondorioak proposatzeko. Ildo beretik doa “National Writing Project”. Grayren iritziz (1985) irakasleek zintzotasunez eta konfidantzaz, lankidetzan elkar aberastu behar dutela argi ikusten da bere ekarpenetan: “Los docentes [...] deberán enseñar a otros docentes [...] Durante este proceso, los educadores hablan abiertamente y sin tapujos sobre sus fracasos y sus éxitos” (61-68 or.).

K.E.ko profesionalen formakuntzan emozioen kudeaketa gai garrantzitsua bihurtu da eta horren erakusle da ikastaroak diseinatzerakoan oinarritzat hartutako leloa: KE (2021) “Bihotza hezi gabe burua heztea? horri ezin zaio inola ere hezkuntza deitu” (8.or). Prestakuntzak badu alderdi digitala ere, K.E.ko web orrian "Praktika onak" deritzen jardunbideak igo dituzte irakaslek eskuragarri edukitzeko. Kristau Eskoletan izandako adituen hitzaldiak ere bildu dituzte. Tolosako Herrikide Ikastetxearen (2019) "Gu Geu" proiektua da gaian profesionalak janzteko ildo nagusiak ezartzen dituen baina badira osatzeko erabiltzen dituzten beste ekarpenak ere: Mendizabal (2020) "Komunikazio ez bortitza" hizketaldiak emozioen garrantzia adierazten du. "EmanTik" (2019) Andoaingo gizarte zerbitzuen argitalpenak emozio-patroietan dauden aldaketak azaltzen ditu, Kanjo aplikazioaren bidez ikasleek sentimenduak erregistratzen dituzte eta profesionalek arrisku egoerak detektatu ditzakete.

Hauetan programa berriena GUGAN da. Ikasle eta irakasleen inteligentzia emozionala lantzeko planteatu da, ikasleak pertsona gaituak eta zoriontsuak bilakatzeko helburuz ardatz hartzen ditu norbere ezagutza, motibazioa eta autoerregulazioa (intrapertsonalki), baita elkarbizitza baikorra ere (interpertsonalki). Proiektua gidatzeko bi liburuxka publikatu dira gaur arte, izenburu berdinen baitan: "Gugan. Adimen emozionalean hezi, ongizatean hazi." K.E. eta Timoneda, C. (2022)

Neurozientziaren ikuspuntutik, pertsonaren dimentsio denak aztertzen dira eskolak ongizate-inguru izan daitezen eta portaera-arazoei erantzun integratzailea emateko. Horretarako, bi bide nagusitzen dira. Lehena prebentziozkoa (emozio memoria positiboa eratze) eta

bigarrena onbideratzailea (defentsa, min emozionala landu, kudeaketa egokirako tresnak eskaini jokabide aldaketa lortzeko).

Alegia, Timonedak (2022) erabiltzen duen metaforaz baliatuta, egoera kokatuko da (kea identifikatu) eta ondoren, keari putz eginda sua piztea ekidin (onbideratu).

Helduak formatu eta aditu bilakatzea beharrezkoa da hurrek jarrera disruptiboa izatea eragin dezaketelako desoreka emozionalek: Psikosomatizatu eta min fisikoa pairatu; apatiko, inhibititu edo mutu jokatu; autosuntsipenezko edo dependentziazko jarrerak hartu (jolasa, elikadura, sexua...); aniztasun desberdinei (sexu, arraza..) fobia garatu; (ziber)jazarpenean parte hartu ala ikasketak uztea.

Arrisku horien aurrean Timonedak (2022) jardunbide egokien lau oinarri apatzen ditu: segurtasuna (erronkei aurre egiteko gaitasunean sinestea), prebentzioa (onartua izatea) erantzukizuna (ardura helduaren gain ez, eurek egin behar) eta duintasuna (egin eta izan, ezberdinak dira).

3. Metodologia

3.1. Hastapenak

Eskolan ikasleen osasun emozionala zaintzeko gela berritzailea martxan jartzea ideia teorikoa izatetik praktikara eramateraino bide luzea dago. Are gehiago, jakinik, aurrekaririk gabeko proiektu bat dela. Nola lan honen gauzaketan jasotako datuak, hala jaurtiko dituen emaitzak etorkizunean izango denaren lehen haziak besterik ez dira. Praktikarekin eta denborarekin hau moldatzen joango da uneko beharretara eta urtez urte bizitako esperientziara zein ikaskizunetara egokitzeke.

Dena egiteke egonik, honi heldu zaio aurrea: espazio berria definitu, erabiltzaileak identifikatu, egin daitezkeen eskuhartzeak zerrendatu eta arduradunak formatu. Lanketa honetan zehar literatura (artikuluak, liburuak, aktak...) berrikusi dira eman diren aurrerapausoek oinarri justifikatu bat eduki dezaten.

3.2. Estatistika-analisia

Prozedura ezberdinen uztarketarekin burutu da proiektu hau. Metodologia kualitatiboa du ardatz, hainbat fenomenoren sorreraren zergatiari erantzuna topatu nahirik egoera zehatzen azterketa lehenetsi da.

Jakina da emozioen kudeaketa egokia ez dela erraza. Azken urteetan gaiak ikusgarritasuna irabazi du gure gizartean. Ezin jakin haurren arteko jazarpen eta biolentzia kasuen igoeragatik

den edota gizarteak sentiberatasuna garatu duelako horrekiko. Etorkizun kontziente baterako bidea ireki nahi da, emozioak identifikatzen eta autoerregulatzen ikastearen onurak baliatuz. Eskuhartzearekin emozioak kudeatu eta sozializazioa hobetzea bilatzen da. Banakoak uneko sentimenduaren arabera, zer behar duen identifikatu beharko du sentazio horrek gainditu ez diezaion. Horrela, bere osasun emozionala zainduta, alderdi hobearen egongo da bizitzako beste eremuei aurre egiteko ere (soziala, akademikoa, familiaria dagokiona...). Gela honen diseinua norberaren onarpena eta irudi positiboa osatzera bideratuta egongo da. Heldu profesionalak bidelagun izatea izango denez giltza, eskuhartze-protokolo bat sortzea proiektuaren bihotza izango da.

3.3. Aztergaia

Orain artekoarekin, ikergai diren emozioak, erabat abstraktuak eta neurtezinak direla jabetu gara. Zailtasun gehigarriak dira noiznahi pizten direla pertsonengan, erabakiak izan ordez, bulkadak izan ohi dira. Zehatzago esanda, besteekin elkarreraginean esnatzen dira eta zenbaitetan kontrolpetik ihes egin eta “leherketak” gertatzen dira.

3.4. Lagina

Ikergai den eskolako ikasleria zati bat aztertu da, aniztasun handikoa gertatu dena. Edonolako premia berezidunak, familia desegituratuetatik datozenak, hizkuntza ulertu gabe eskolatu direnak, jarrera disruptiboak edota sozializatzeko zailtasunak agertzen dituztenak, arazo pertsonal ala mentalak pairatzen dituztenak etb. Nolako problematika aurkezten duten, zein motatako laguntza jasotzen duten eta zein baliabideekin artatu izan zaien zerrendatu da. Hori oinarri, gabeziak identifikatu eta hobekuntza-proposamenak egin dira. Alegia, Babes-Etxearen xede izango da hutsune horiek betetzea.

3.5. Tresnak

Espazio hau arrakastatsua izan dadin, instrumentu garrantzitsuena heldu adituak edukitzea da. Azpimarragarria izango da baita erregistro idatzi bat egitea. Horretarako irakasle-agendaren erabilera berebizikoa gertatzen da. Ondorengo puntuan, ikuspegi historiko honen sustatzaile gisa aipatzen dira Richert (2003) eta Gray (1985).

3.6 Ondorioak

Espazio berria irekitzeak dakar ez dagoela aurretiazko datu-bilketarik eta lan honetarako lortutako datuak direla artxibatuko diren lehenak. Erregistro hutsak ez du balio. Analisia eta hausnarketa ezinbestekoak dira. Nabarmen gelditu da hori kasu honetan lortutako ondorioak

ikusirik. Hain zuzen ere, jasotako emaitzak alteratuak daudela ohartarazi da. Gauzak horrela, etorkizuneko datu jasoketa modu berria proposatu da, distortsio hori ekidingo duena, eta hortaz, aurreko emaitzak aldatuko dituena.

Emaitzak errealitatetik urruti gelditu direla esatean, honakoa adierazten da: haur gatazkatsuenek lortzen dutela arreta eta isilik gelditzen direnak ikusezin bihurtzen direla. Ondorioz, nagusiki biolentzia kasuak (adib.: jotzea, oihukatzea, gelatik irtetea) erregistratu dira.

Kontran, ikastetxe horretan bertan irakasle igarotako urteek eskainitako esperientzian oinarrituta, sozializatzeko zailtasunak sarriago topatu dira jokaera disruptiboak baino. Normalean, inhibitua edo aukerazko mututasuna agertzen dutenak, psikomotritate erlazionalera bideratzen dira sistematikoki. Baina badaude eskolan egin daitezkeen eskuhartzeak, eta modu oso ona dirudi sozializazioa eta adierazpena bultzatzeko gorputz adierazpena erabiltzea. Egiaztatuta dago gizarteratzen eta hitz komunikatzen arazo larriak dituzten haurrek (autistek ere) dantzarekin eta mugimenduarekin euren zailtasunak gainditzen dituztela. Hala ikusi da ikerlari askoren lanetan, hemen adibide bat: Cortés-Vázquez eta Ballesteros-Moscusiok (2024) ideia horretatik abiatuta eta Babes-Etxea sortzearekin erlazionatuta, diote “ The tendencies of therapies are toward dance and movement therapy due to the manifested benefits to social and communication skills of autistic children”.

Hipotesiak ere sortu dira, adina faktore duena izan da nabarmenena. Haur Hezkuntzan pasibotasuna erakusten duten haur batzuk, apur bat handitzean, egonezina biolentziaz adierazten hasten direla ikusi da. Errepikatzen den zerbait da.

Halako hausnarketak profesionalen galderak erantzun eta euren jardunerako lagungarri izango dela sinestuta, erregistro idatziaren onurak azpimarratu dira . Irakasleei egunerokoa izan dezaten eskatzen zaie, non gertaerak, eskuhartzeak eta lortutako emaitzak erregistratuko diren. Babes-Etxeak, bere aldetik, akta betearaziko die haur eta helduei datu-bilduma sortzeko, etorkizunean ikuskatzeko erreferentzia gisa. Hau ere dokumentu malgua izango da, urteen poderioz esperientzia desberdinekin aberastuko dena. Metodo narratiboaren aldekoak dira Richert (2003) “La escritura permite [...] sacar conclusiones”(203 or.) eta Gray (1985) “Los docentes [...] deberan enseñar a otros docentes [...] Durante este proceso, los educadores hablan abiertamente y sin tapujos sobre sus fracasos y sus éxitos” (61-68.or).

3.7. Alderdi etikoa


Aztergai izan den ikastetxeko ikaslegoaren zati bat ikertzeko baimena eskatu da (dituzten arazoak, jasotzen duten laguntza, eskaintzen zaizkien baliabideak etb). Ondotik, Babes-Etxeak nolako erantzuna eman diezaieketen ikertu da. Gainera, partaideak uneoro informatu dira. Jasotakoa konfidentzialtasun osoz tratatu da. Informazioa proiektu honetarako erabiliko da eta etorkizunean erabili ahal izango da espazio berri honetarako hobekuntza proposamenak egiteko xedearekin, ez beste ezertarako. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteko Legean xedatutakoaren araberrako kudeaketa jasoko du erregistraturik gelditu den horrek. Subjektuak bildutakoaren berri izateko eskubidea du, baita informazioa zuzentzekoa ala ezeztatzekoa ere.

4. Emaitzak

Proiektu honetan eskuhartzea erabakitzeko protokoloa, espazioaren izaera, gelaren diseinua eta baliabideen horniketa finkatu nahi da. Aurrez esan bezala, lanaren bihotzean ordea protokoloa kokatzen da, ongi formatutako helduak izango baitira Babes-Etxearen erabileraren arduradun. Nola ez, espazioa bera ere emaitza bat izango da.

4.1. Jardunbide protokoloa

1.irudia. Protokoloaren eskema.



Araututako gidalerro bat eratu da arduradunentzat:

1. Desorekaren aurrean gorputz kontrola berreskuratzen lagundu
2. Analisia, onarpena eta komunikazioa: Antzerkia erabili egoerak erreproduzitzeko.
3. Konponbidea: zer behar du hobeto sentitzeko?

4. Jolasa erabili (ariketak planteatu baina ez derrigortu ezer egitera. Bere proposamenak ere kontutan izan, baldin baditu)

5. Helduak eskuhartze minimoa izan.

6. Lagundu deskubritzen zerk oreka dezakeen muturreko sentimendu hori

7. Ez epaitu haurra. Ekintza agian ez da izan egokia baina honek ez du gaizto bihurtzen.

8. Ardura apur bat bere gain ipini, kontzientzia hartu dezan. Emozioak ez dira onak eta txarrak baina horien ondorioz gertatzen dena bai.

9. Babes-Etxean ere Adostokia erabili (behar bada). Kartelak armairuan egongo dira.

10. Helduak entzute aktiboaren pautak presente edukiko ditu saio osoan zehar eta oso kontuz ibili beharko du ez kontraesaneko ondoren adierazten diren puntu hauek:

- Begietara begiratu. Kontaktuari garrantzia eman. Distrakzioak ekuaziotik atera (mugikorrak, komunera irtetea, ura edatea...).
- Ez moztu haurraren diskurtsoa, sustatu pentsatzen eta sentitzen duena adieraztea.
- Aholkurik ez eman haurrak eskatu ezean. iritzi eta emozio pertsonalak ez dezatela interferentziarik egin.
- Entzundakoa geure hitzetan errepikatu, ulertu dela ziurtatzeko eta haurra entzuna sentitzeko.
- Sentimendu eta emozioak izendatu.
- Gorputz hizkuntzarekin irekitasuna eta prestutasuna adierazi.
- Hiztegi deskribatzailea erabili eta ispilu izan: “hau egitea atsegin duzula identifikatu dut”.
- Haurra dudan badago zerbait egin ala ez, “bai” batekin animatu nola inhibituei hala amorrazioz objektu bati ostiko bat eman nahi eta gogori eusten ari den hori. Ez badu deskargatzen tentsioa lagun batekin hustuko baitu.
- Errespetuz aritu, etiketak ez jarri, umearen ontasunean sinistu eta ekintza soilik izan dela okerra adieraztea. “Emozio batek hartzen gaituenean zaila da erabilitako hiztegia kontrolatzea” (La Moneda, 2022).
- Inbasioa ez izan, “erritmoa errespetatzea, hauen produkzioekiko interesa agertzea baina hauek interpretatu gabe eta eurei uztea obraz hitz egiten. Baita denbora ematea lana buka dezaten, zeregina amaitzearen plazera bizitzeko”. (Aucouturierren, 2018).

11. Errefortzu positiboa eskaini. Gauzak ongi egiten dituenen edota bere okerrak zuzentzeko gogoia daukanean, ikasten jarraitu nahi duenean etb. bere esfortzua baloratu.

12. Okerrek ere ikasteko balio dutela ikusarazi.

13. Isiluneak edota erantzun eza errespetatu. Bere denbora eta espazioa eman.

14. Amaitzean, animoz eta fisikoki nola dagoen ikertuko da, aldatu da hasieratik hona?

15. Pertsona gaituak dira. Hurrengoan jokaera kontrolatzen saiatuko direla zin egin behar dute.

16. Helduak eta haurrak akta bana beteko dute nortzuk joan diren, zergatik, zer egin duten saioan eta ea ateratzean hobeto sentitzen diren adieraziko dute betan. Idatziz erregistratuko dira (izan daiteke digitalki, haurren gaitasunen arabera) erantzunak historial bat eratzeke, metodo narratiboan oinarritutako informazio iturri partekatu bat eduki dezaten irakasleek.

17. Atera aurretik, laburbildu esandakoa, ondorioz atera bada ere aipatu.

4.2. Aurreko puntuarekin lotuta, txantilo hauek eratu dira lehen egunetik erregistroa egin ahal izateko

<i>Helduen erregistro-taula</i>	<i>Haurren erregistro-taula</i>
Noiz / Nork Emozioa Egoera mota Esku-hartzea Data: ○ Arduraduna ○ Zuzendaria ○ Orientatzailea ○ Irakaslea ○ Tutorea Nola sartu da? ○ Agresibo ○ Apatiko ○ Pentsamendu Suizidekin Nola atera da? ○ Orekatuago ○ Berdin ○ Desorekatuago Zergatik dago Babes-Etxean? ○ Ekarri egin dute ○ Bera etorri da Nolakoa da egoera? ○ Puntuala. Pertsonala. ○ Puntuala. Eskolakoa. ○ Errepikakorra. Pertsonala. ○ Errepikakorra. Eskolakoa. Saioan egindakoa: ○ Kolpatu ○ Ipuina ○ Erlaxazioa ○ Sinbolikoa Partaideak: ○ Bakarrik ○ Lagun bat ○ Helduarekin Nola ez, haurren iritziak ere jasoko dira eskuhartzeen kalitatea baloratzeko, hobetze proposamenak egiteko eta haurrak ongi sentiarazi diren ala ez ezagutzeko.	Erabiltzailearen izen abizenak. Heldu laguntzailearen izen abizenak Nola etorri zara? ○ Borondatez ○ Eskatu didatelako ○ Indarrean ekarri nautelako Zergatik etorri zara? Zein emozioarekin zatoz? Zein emozioarekin zoaz? Zer egin duzu Babes-Etxean? Zer aldatuko zenuke? Berriz berdina gertatuko balitz, berdin jokatuko zenuke? Baloratu 0tik 10ra egonaldia 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Gomendatuko zenieke lagunei Babes-Etxea? Bai Ez Sinadura:

4.3. Espazioaren sorrera

Esperientzia honetan, garrantzitsua da haurrak kontziente izatea Babes-etxean eskuhartze baten parte direla. Erabaki egin beharko dute noiz duden eskola-bizitzari aurre egiteko moduan, edo noiz egoera desorekatuan. Autoerregulaziorako erreminta izango da Babes-Etxea. Horrela, saioaren hasieran eta amaieran bere emozioen identifikazioa egitera gonbidatuko zaie, euren egoeraren jabetza hartzen lagunduko dielako. Hortaz, onura gehien ekarriko dien ikas-egoerarekin artatuko da kasu bakoitza. Hori horrela, moldagarria den tailerraren izaerarekin sortu da espazio hau.

Battista Quinto, Borghik (2005) tailerrak deskribatzean honako deskribapena ematen du. “Tiene múltiples identidades [...] es un área especializado y alternativo, complementario a los espacios de la clase [...] podría entenderse como un almacén, especialmente equipado y dotado de materiales bien elegidos [...] capaces de provocar puntos de vista novedosos [...] El taller se plantea como estímulo para encontrar soluciones nuevas en relación a los materiales y los instrumentos al intercambio informativo con los demás”(23-34.or.) Horrekin guztiz bat egiten duen espazio bat sortzea bilatzen denez, tailer izaera emango zaio.

2022. urtera arte, Babes-Etxeaz hitz egiten hasi aurretik, almatzen erabilera zeukan gelak. Ikasturte horren hasieran, proiektu hau dela eta espazioa hustu, diseinua garatu, materialen zerrenda eta aurrekontua proposatu eta onartu ostean, gela atondu da.

2, 3, 4, 5 eta 6 irudietan jarraitutako prozesua ikus daiteke.

2.irudian Babes-etxea hutsik dago. Ezeren aurretik, espazioa hustu eta garbitu zen, ostean, sarrera antolatu zen. Beranduago, 2023ko maiatzean, leihoa estali zen segurtasun arrazoiengatik..

3.irudian Babes-etxearen diseinua agertzen da. Beha daitekeen bezala sarreratxoa eta babes etxeko espazio nagusia ate batez banatuta daude. Erabaki bada umea bakarrik sar daitekeela espazio nagusira, hor itxaron diezaioke nagusiak. Eremu hau da baita, sartu eta berehala momentuko aldatzearen detekzioa egiteko lekua, emozio metroaren bitartez (4.irudia). Horrela, eskuhartzearen aurretik kontziente izan dadin emozioa nondik datorkion eta hori nola kudea dezakeen berriz orekara bueltatzeko. Helduak galderekin lagundu diezaioke: Nola sentitzen zara? Zerk piztu du emozio hori? Zerk uste duzu egingo dizula mesede? Erantzunek nagusiaren lana asko erraztuko dute. Irudiaren eskuinaldean dagoen armairuan espazio handian behar ditzaketen hainbat baliabide daude, helduaren baimenaz soilik har daitezkeenak.

Erabakia ikaslearen egoera fisiko-emozionalaren araberakoa izango da. Esaterako bozgorailua, soka (honen erabilera ere ikuskatua izango da itotzea bezalako arriskuak ekiditeko). Hor egongo da baita ordenagailua amaierako akta betetzeko.


Espazio nagusian sartu orduko (5. eta 6. irudiak), eskuin aldean estera bat dago lurrean eta osagarri moduan luzaketa posizioen proposamenak eskegi dira horman. Burugorputz konexioa bilatzeko xedea du eremu honek. Harrerako armairuan Mindfulness audio-gidak topatu daitezke, non arnasketa eta autoezagutza lantzen diren. Irudi hauetan baita ere motrizitate eta erlaxazio guneak, psikomotrizitate saiotako blokeak eta pilota bigunak bilduta sinbolismorako eta jaurtiketa seguruak egiteko eremua sortu da.

Altzariak lekualdatu eta bota daitezke, gotorlekuak eraiki ezkutatzeke besteak beste. Momentuz plastikozko pilotak daude baina aparrezkoak eskatuak daudenez heldu ahala aldatuko dira.


1.irudia: Espazioa hutsik



2. irudia: Diseinua




3.irudia: Espazioa hutsik



4.irudia: Espazioa hutsik



5.irudia: Espazioa hutsik



Gune honetatik hurrengora trantsizioa sofak egiten du. Beste aldean, alfonbra gainean, kuxinak ipini dira giro epela sortzeko, eseri edo etzateko eta nahi bada emozio ezberdinei

buruzko liburuak irakurtzeko. Sarrerako armairuan daude ale batzuk, baina helduari eskatuta soilik lortu ditzakete.

Boxeo eremua ere badago. Punching-ball bat eta segurtasuna bermatzeko derrigor erabili beharko diren eskularruak daude sentimenduak kolpeka adierazi nahi dituenarentzat. Alboan, aparrezko tutuekin hornitutako saski bat dago pareta jo, elementuak jaurti eta tentsio tonikoa askatu ahal izateko. Zenbaitetan, “borrokatzera jolastu” daiteke, benetako gudarik gerta ez dadin.

4.4. Ikas-egoera: koloretako munstroak bihotzean

Koloretako munstroa (Llenas, 2012) ipuinean oinarrituta, zenbaitetan emozioek gainditu eta geure barruko munstroa azaleratzen baita. Sentimenduen asanbladatik (hasierako fasea) emeziometrorra brote biolentoa, hiperaktiboa, pasibitatea, antsietatea edo halakorik pairatu badute (txertatze jarduera), dituzten emozioak azaleratzeko (finkatze fasea). Ipuin-kontaketa "Koloretako munstroa" (Llenas, 2013) egin ondoren (egituraketa fasea) murala marraztea eta koloretako bolak potoan sartzea litzateke aplikazio eta komunikazio fasea. Azken ekoizpena beraien argazkia emozioen piktograman kokatzea da, kausak identifikatzea, enpatizatzea konponbidea proposatzea.

5. Eztabaida eta ondorioak

5.1. Proiektuaren emaitzak eta mugak

Emaitza nagusia espazioa eratzea izan da, eta bide horretan sortu diren beharrak direla eta, bigarren mailako beste hainbat azpi-emaitza gauzatu direla ondorizta dezakegu. Horietako batzuk adituen jardute protokoloa, erregistro txantiloak eta ikas-egoera izan dira. Tailer izaera eman zaio Babes-Etxeari, alde batetik erabilera aniztasuna ahalbidetzeagatik eta bestetik arazo baten aurrean irtenbideak bilatzeko nahia direlako ardatz. Finean, emozioak modu egokian azaleratzen ikasteko eta horien identifikazioan zein kudeaketan trebatzeko txoko seguru bat da.

Garrantzitsua da nabarmentzea ikasleen behaketatik abiatu dela, behar bat identifikatu dela, eta horri erantzuna ematen saiatzearren egin dela lan hau.

Proiektua berritzailea da, ez dauka aurrekaririk, beraz berau bilakatuko da beste proiektuen aitzindari etorkizunean. Gainera, gai zabala eta abstraktua da lantzen dena. Ikasleen premiak ere anitzak dira. Osasun emozionalean langileak formatzen hasi dira azken urteetan ikastetxeak baina horrelako analisi sakonak egitean ikusten da zein funtsezko den hori.

Guztiarekin, gela ideiatu, diseinatu, hornitu eta martxan jartzea lortu da eta emaitza politik jaurti ditu bere lehen ikasturtean. Gehienbat behar bereziak dituztenekin, beraien sozializatzeko eta gizarteratzeko zailtasuna dela eta frustrazio asko gordetzen dutelako, baina baita itxura batean gatazka berezirik ez duten hurrekin ere. Izan jolasean edukitako tirabira baten harira edota etxetik haserre etorri delako. Noski, erantzun ona izan du baita agresibitatea erakutsi dutenekin ere, lasaitzeko txoko bat baita, zauri emozionalak sendatzekoa.

Berriz ere, azpimarratuaz aurrekaririk gabeko proiektua izan dela, aitortzekoa da pausuz-pausu eta unean uneko erabakiak hartuz egin dela aurrera bidean. Atzera begiratuak eta hausnarketak ezinbestekoak izan direla eta zailtasunak esperientzia eta formakuntza propiotik artatu direla. Argi dago ez dela proiektuaren azken emaitza, soilik martxan jartzea ahalbidetu duen jarraibide-bilduma.

Lortu den emaitza honetara iristeko literatura asko kontrastatu da eta egokienak hautatu dira. Batetik, Quintok (2005) tailerrei buruz ematen dituen deskribapenekin, Babes-Etxeari identitate bat ezarri zaio. Bestetik, Timoneda neurozientzialariak giza-jokabideaz esandakoa aintzat hartuta erabiltzaile motak eta haiekin egin daitezkeen eskuhartzeak planteatu dira.

Ezin aipamen gabe gelditu Gray (1985) eta Richert (2003). Hauen narrazioaren aldeko diskurtsoak akta betetzeko eginkizuna gehitu du saio hauetan. Oinarrizko teknika eta baliabide bilakatu nahi da narrazio prozesua. Horrela hezitzaileei lan dokumentatugabea egitetik, erregulatuagoa eta datu-basea sortzeko moduko lana egiteko deia egiten zaie aktak eta irakaslearen agendak erabilita. Kontsultarako materiala izatera helduko da, esperientziak biltzen joan ahala, horrela kasu berrien aurrean aurkitzen diren maisu-maistrek ikusi ahal izango dute nola jokatu zuten beste batzuk eta zein emaitza erdietsi zuten. Horren gainean, noski, proposamen berriak egin ahal izango dira denen lan bateratua aberasteko.

Erdietsitako emaitzak aurrezarritako xedeak betetzen ditu. Egun, kasua ematen denean, langileek badakite nork artatu behar duen haurra, non, bertan zer egin dezaketen etb. Umeak ere jakinaren gainean daude emozioak adieraztea posible dela leku honetan, hauek gordetzea kaltegarria dela eta ikastetxeko langile guztiak laguntzeko prest dituela.

Battista Quinto Borghik (2005) dioten bezala, inoiz ez da lortuko azken emaitza ideala, beti egongo da zer hobetu, meta bat lortzean beste bat ipiniko da haratago joateko eta arazo berriei irtenbidea emateko. Horrela, osasun emozionala hobeto artatzeko bidean pausu bat aurrera izan da proiektu hau, jabetuta ere, oraindik pausu asko ditugula egiteko.

Lanaren lehen orritan aipatu da autore batzuk eskola modernoa kritikatzeko dutela, benetako bizitzarekin lotura gutxi duela leporatuta. Arrakala gero eta handiagoa dela hezkuntza eta gizartearen artean. Ideia hauek kontutan hartuaz Babes-Etxeak ikastetxea jendartera gerturatu nahi izan du, pertsonen eguneroko arazoetara, ikasleen ongizate integralaz kezkatuta eta eskolaz at eduki ditzaketen arazoei sortarazitako ezegonkortasunak edo gaizkiegonak eskolaren ardurapean jaso ditu. Hauek adierazi eta tratatzeko lekua eratu da. Goleman (1998) gogora ekarriz, pausa bat hartu eta bulkadaz ez jokatzeko ahalbidetu behar da.

5.2. Hobekuntza proposamenak

Egunerokoan begirada analitikoa edukitzeak ahalbidetzen du jardunaren indargune zein ahulgunez jabetzea. Hala eskolak gizarteari ahalik eta ekarpen aberatsena egingo dio, argi baitako ikastetxea gizartearen isla dela eta gainera bertan dituela etorkizuneko helduak. Jakintza eta trebatzea eskaini behar dute ikastetxeek, alor guztietan, baita osasunaren zainketan ere, hots, kudeaketa emozionalean ere. Kontzientziazioa eta prestaketa dagoeneko egin dira, gutxienez hastapen maila batean. Orain zerbitzu horren erabilera egokia egitea dagokie ikasle eta irakasleei. Erabileraren behaketatik lortuko baitira hobetze proposamenak eta horrela, bikaintasunerako bidean aurrera jarraituko da.

5.3. Zabaltzea

Dokumentuan zehar definitu den Babes-Etxe hau, ez da soilik eskoletarako erabilgarria, haur ospitaleetan gaixoaldi luzeak edo traumatikoak igarotzen dituztenentzat izan daiteke, modu berean adin txikikoen harrera etxeetan suerta daiteke baliabide honen beharra. Ziurrenik, aipatu ez diren egoerak egongo direla Babes-Etxe baten beharra dutenak. Proiektu honekin, badute zirriborro bat nondik hasi jakiteko, eta nork daki, agian hobetze proposamen batzuekin lan hau osatzen jarraitu dezakete.

Erreferentziak

- 75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, *Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa* (EHAA, 2023-06-09) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302727e.pdf>
- Aguirreurreta, M. (2021). *Urko hartzatxoak ez du ostiraletan eskolara joan nahi izaten* [Bideoa].
- Algar editorial. (2021). *A veces mamá tiene truenos en la cabeza* [Bideoa]. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=Cd6qhoxod6Q&embeds_euri=https%3A%2F%2F
- Andoaingo udaletxeko gizarte zerbitzuen departamentua. (2019). *EmanTik*. Andoain Ikastola. <https://andoainikastola.eus/es/emantik-2/>
- Antoniano. (2022). *Ikastetxe barruko komunikazioa. Ane Ezeizak, ikastetxeko Orientatzaileak EmanTik planaren berri eman ahozko bilera pertsonal batean*. Antoniano Ikastetxea.
- Antoniano. (2022). *Ikastetxe barruko komunikazioa. Zentroko Babes-Etxearen lehen protokolo zirriborroa. Antonianotako Drive gune digitalean*. <https://drive.google.com/file/d/10BqU1oFsfXqP03eHeAFdhDRhC47XxB1V/view?usp=sharing>
- Aristóteles. (Antzinakoa). Bihotza hezi gabe burua heztea? Honi ezin zaio inola ere hezkuntza deitu. In *Frases célebres*. <https://frases-celebres.com/>
- Aucouturier, B. (2018). *Actuar, jugar, pensar: Puntos de apoyo para la práctica psicomotriz educativa y terapéutica*. Graó.
- Battista Quinto, B. (2005). *Los talleres en educación infantil*. Graó.
- Cimadevilla banatzaileak. (d.g.). *Emozioak lantzeko material didaktiko ezberdinak*. Discimadevilla. www.discimadevilla.com
- Cortés-Vázquez, M., & Ballesteros-Moscio, M. Á. (2024). The psychotherapeutic use of dance as an educational tool to improve social skills in children with autism. *Research in Dance Education*, 1(23), 1–23. <https://doi.org/10.1080/14647893.2024.2354786>
- Creus, A., & Domingo, L. (2013). Miradas sobre la infancia. *Cuadernos de Pedagogía*, 436, 26–29.
- Dekretua 75/2023, maiatzaren 30ekoa, *Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa* (EHAA, 2023-06-09). <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302727e.pdf>
- Delgado, I. (2014). *Destrezas sociales*. Paraninfo.
- Docter, P. (2001). *Monstruos*, S.A. [Filma]. Disney Pixar Films.

- <https://www.filmaffinity.com/es/film265575.html>
- Fahrenheit451. (d.g.). *Koloretako munstroak sentimenduen koloreak. Fahrenheit451*.
<https://www.fahrenheit451cafe/libros.com/>
- Filmaffinity. (1995). *Toy Story* [Filma]. Filmaffinity.
<https://www.filmaffinity.com/es/film459936.html>
- Filmaffinity. (2009). *Los mundos de Coraline* [Filma]. Filmaffinity.
<https://www.filmaffinity.com/es/film629275.html>
- Filmaffinity. (2014). *La mecánica del corazón* [Filma]. Filmaffinity.
<https://www.filmaffinity.com/es/film924979.html>
- Filmaffinity. (2015). *Inside Out* [Filma]. Filmaffinity.
<https://www.filmaffinity.com/es/search.php?stext=Inside+out>
- Filmaffinity. (2024). *Inside Out 2* [Filma]. Filmaffinity.
<https://www.filmaffinity.com/es/search.php?stext=Inside+out>
- Funes, J. (2018). *Quiéreme cuando menos me lo merezca...porque es cuando más lo necesito. Una guía para padres y maestros de adolescentes*. Paidós Ibérica.
- Galarraga Arrizabalaga, H. (2023). Eskolako Irakurketa Plana eraikitzen esperientzia erreal bat irakasleen prestakuntzan. *Ikastorratza, e-Revista de didáctica*, 30, 42-60.
https://doi.org/10.37261/30_alea/3
- Goleman, D. (1998). *La inteligencia emocional en la empresa*. Vergara.
- Gray, J. (1985). Joining a national network: The national writing project. *New Directions for Teaching and Learning*, 24, 61-68. <https://doi.org/10.1002/tl.37219852408>
- Kanjo. (d.g.). *Kanjo emotion*. Kanjo Emotion. <https://www.kanjoemotion.com/>
- Koloretako munstroa. (2018). *Koloretako munstroa* [Bideoa]. Cuentos en la Nube.
<https://www.youtube.com/watch?v=awLOH4AeZjY>
- Kristau Elkarte. (2021). *Gugan proiektua. Ikastetxe barruko komunikazioa*, Peio Pikabea zuzendariak bidalitako email baten bidez.
- Kristau Elkarte. (2022). *Gugan. Adimen emozionalean hezi, ongizatean hazi. Kristau Eskola*.
<https://www.kristaueskola.eus/proyectos/gu-gan/>
- Kristau Elkarte. (d.g.). *Praktika onak*. Kristau Eskola.
<https://www.kristaueskola.eus/eu/buenaspracticas>
- La Moneda, A. (2022). *El psicomotricista sistémico*. Círculo Rojo.
- Lasseter, J. (1995). *Toy Story* [Filma]. Disney Pixar Films. <https://toystory.disney.com/>
- Llenas, A. (2012). *Koloretako munstroa*. Flamboyant.
- Lozada García, R., & Acle Tomasini, G. (2021). Problemas de conducta en el aula:

- Construcción del concepto desde la perspectiva de las maestras de primaria. *Revista Iberoamericana de Psicología*, 14(3), 131–143.
<https://reviberopsicologia.iberu.edu.co/article/view/2052>
- Malzieu, M., & Berla, S. (2013). *Jack y la mecánica del corazón* [Filma]. Wikipedia.
[https://es.wikipedia.org/wiki/Jack_y_la_Mec%C3%A1nica_del_Coraz%C3%B3n_\(Pel%C3%ADcula\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Jack_y_la_Mec%C3%A1nica_del_Coraz%C3%B3n_(Pel%C3%ADcula))
- Melling, D. (2013). *Burgi, maite zaitugu! Ibaizabal argitaletxea*.
<https://www.ibaizabal.com/es/tienda/burgi-maite-zaitugu>
- Mendizabal, N. (2020). *Zentrora bertaratuta emandako formazioa. "Komunikazio ez bortitza"*.
- Monasterio, M., González, S., & García, A. (2011). *La coeducación en la escuela del siglo XXI*. Los Libros de la Catarata.
- Monsters University. (2013). *Review: Monster University*. MovieFilmsLA.
<https://moviefilmsla.wordpress.com/2013/06/23/review-monsters-university/>
- Mundoderukkia. (d.g.). *Koloretako munstroen eskulana tutuekin*. Pinterest.
<https://es.pinterest.com/pin/1196337398295553/>
- Olazar Intxausti, A., & Mondragón, N. (2022). Familia aniztasunaren trataera Haur Hezkuntzako ikasgeletan irakasleen aurreiritziak eta eskoletako materiala. *Ikastorratza, e-Revista de didáctica*, 28, 28-51. https://doi.org/10.37261/28_alea/2
- Orsini, C. (2019). [Irudia erantsi da]. Facebook.
<https://www.facebook.com/Serfamiliapsicologia/photos/a.1327893783936278/2200470893345225/?type=3&theater>
- Richert, A. (2003). La narrativa como texto experiencial: Incluirse en el texto. In A. Lieberman & L. Miller (Eds.), *La indagación como base de la formación del profesorado y la mejora de la educación* (193–208). Octaedro.
- Sánchez, C. (2020). Normas APA (7a edición). Normas-APA.
<https://normasapa.org/referencias/ejemplos/>
- Selick, H. (2009). *Los mundos de Coraline* [Filma]. YouTube.
<https://www.youtube.com/watch?v=8jlmIhDttck>
- Taboada, B. (2021). *Amak batzuetan trumoiak izaten ditu buruan*. Algar Editorial.
- Timoneda, K. (2021). *Zentrora bertaratuta emandako formazioa. "Adimen emozionala"*.
- Tolosako Herrikide Ikastetxea. (2019). *Zentrora bertaratuta emandako formazioa. "Gu Geu"*.
- Tonnucci, F. (2013). El alimento de la escuela debería ser la experiencia de los niños. *Blog de Educación y Tic*.

- Tonucci, F. (2017). Para educar a un niño se necesita toda una tribu. *Aula de Innovación Educativa*, 267, 44–48.
- Univeso azul. (d.g.). *Universo Azul* [Bideoa]. YouTube.
<https://www.youtube.com/channel/UCLQD0mjixO-7pfttSXixx5A/videos>
- Urquijo Serna, M., & Alkorta Elorza, E. (2023). Bizkaiko Hezkuntza-Proiektu Alternatiboak: ezaugarriak, erronkak eta mugak. *Ikastorratza, e-Revista de didáctica*, 30, 61-87.
https://doi.org/10.37261/30_alea/4
- Williams, C., & Hall, D. (2014). *Big Hero 6* [Filma]. Walt Disney Animation Studio.
[https://en.wikipedia.org/wiki/Big_Hero_6_\(film\)](https://en.wikipedia.org/wiki/Big_Hero_6_(film))
- Zumaiena. (2021). *Neu naiz indartsuena* [Bideoa]. YouTube.
<https://www.youtube.com/watch?v=tMJBgw3AkLU>